

Posta elektronikoa prozesu zibilean, bereziki haren froga-indarra

Ixusko Ordeñana Gezuraga, Gorka De la Cuesta Bermejo*
EHUko Zuzenbide Fakultateko Zuzenbide Prozesaleko irakaslea, *EHUko lankidetzakaduna (Eusko Jaurlaritza)

Komunikazio elektronikoen erabilera nabarmenki areagotu da eta horien artean garrantzi berezia eskuratu du posta elektronikoak. Horregatik, posta elektronikoa da lan honen abiapuntua eta froga horrek prozesu zibilean duen posizioa aztertuko da. Lehenik eta behin definizioa eman eta haren marko legala aztertuko da. Alde batetik, dokumentu-frogabidea edo datuak gordetzeko tresna frogabidea den argituko da, eremu batean edo bestean kokatzeak aplikagarri diren arauak baldintzatuko dituelarik. Bestetik, frogaturri hori prozesuan formalki nola aurkezten den azalduko da. Horrez gain, posta elektronikoari berezkoak zaizkion arazoak eta balizko irtenbideak aztertuko dira. Amaitzeko, elementu horren gainean epaileak egiten duen balorazio zehaztuko da.

GAKO-HITZAK: Froga · Balorazioa · Posta elektronikoa · Dokumentua · Datuak gordetzeko tresna.

The meil in civil procedure, specially its proof force

The use of electronic media has increased a lot, becoming particularly important the meil. That is why the meil is the starting point of this paper, where its importance in civil procedure will be analyzed. First, its definition and legal framework are studied. On the one hand, its nature is clarified: is it a document or an instrument to save data? The option, obviously, brings applicable different regulation. On the other hand, how this proof is presented in civil procedure is explained. In addition, problems that meils produces in civil procedure and its possible solutions are studied. Finally, the evaluation made by the judge on this particular proof is showed.

KEY WORDS: Proof · Force · Email · Document · Instrument to save data.

Jasotze-data: 2014-03-05. Onartze-data: 2014-04-07

1. Sarrera

«Neurri handi batean, paperaren zibilizazioaren gainbehera ikusten ari gara bizitzaren zenbait alderditan, juridikoan ere»¹ esan zuen Auzitegi Gorenak (hemedik aurrera, AG) 1997ko azaroaren 3ko sententzian. Adierazpen horretaz geroztik 16 urte igaro dira eta auzitegiak etorkizuna bikain iragarri zuela dirudi. Izan ere, azken urteetako gizartearen eboluzioaren inguruan pentsatzen badugu, argi ikusiko dugu teknologia berriek paperaren tokia nabarmenki hartu dutela. Beraz, lehen komunikazio-bide nagusi eta ideia, pentsamendu edo adierazpenen euskarri zena, egun bitarteko teknologikoek ordezkatu dute. Guztien artean bat nagusi delarik: posta elektronikoa, edo, aforismo bat erabiliz, *e-maila*. Ukaezina da bitarteko horrek azken hamarkadan komunikazioetan eskuratu duen garrantzia². Gure egunerokotasunean kokatzen baldin bagara, argi ikusiko dugu maiztasun handiz erabiltzen dela, hau da, administrazioarekin harremanak izatean, justizian, lan-eremuan eta enpresa-munduan, lagun artean edo familia-harremanetan.

Fenomeno horrek eskuratu duen garrantzia prozesu judizialean ere islatzen da. Azken batean, posta elektronikoz baliatzean komunikatu egiten gara eta horrela negozio juridikoak gauzatu, itxaropenak sustatu, informazioa eman edo egitateak zabal ditzakegu. Hortaz, uziarekin harremana duten heinean, alderdiek prozesura ekarri nahiko dituzte, hots, alderdiek froga moduan ekarriko dituzte. Beraz, etengabeko frogaiturri baten aurrean gaude, prozesu judizialean uzia onetsi edo gaitzestean erabakigarria izan litekeena.

Horren eredu da epai ugarietan maiztasunez egiten zaion erreferentzia. Berrietan ere aipamen ugari egiten zaio *e-mailari*. Esaterako, Balear uharteetan ikertzen ari den *Noos* erakundearen kasuan astero aipamen egiten zaie, alderdietako batek froga moduan aurkezten dituelarik, nahiz eta prozesu penala izan³. Gainera, figura hori jurisdikzio guztietan agertzen da, bere presentzia ez baitago zuzenbidearen alor bati mugatua. Horregatik, prozesu zibila «dokumentuen erreinu» moduan ezagutzen den arren, ezinbestekoa da baliabide berri hauetara egitea, epaileek ezagutzen dituzten prozesuek errealitatearekin paraleloan eboluziona dezaten.

Beraz, ez da arraroa aldizkarietan hauen inguruko erreferentziak aurkitzea, espainiar epaileek aurrera eramaten dituzten prozesuak direla-eta. Hauek guztiek korapilo honetan argia egitera behartzen dute; izan ere, zalantza ugari aurkitzen dira frogak honek prozesuan dituen eraginaren edo aurkezteko formaren inguruan. Hau da, gaia garrantzitsua bada ere, ez dago polemikatik aske. Teknologia aurrera egiten du, baina legea beti astiroago doa, posta elektronikoa eman behar zaion trataeraren inguruan, esaterako, dokumentuetara berdindu behar dugu?

Ildo horretatik, legediak aurrera egin badu ere —egun sinadura elektronikoen inguruan arauak ditugu—, ez da nahikoa iluntasun guztiak desagerrarazteko.

1. AGE (Administrazio-auzien atala) 1997ko azaroaren 3koa, RJ\1997\8251.

2. Garrantzi honetaz jabetzen da, Jaime Bennisar, Andrés, *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, Lex Nova, Valladolid, 2010, 127 or.

3. E.g., Serraller, Mercedes, "El caso Urdangarin refuerza el valor probatorio de los emails", *Diario expansión*, 2013/03/12 eta Peral, María, "El fiscal rechaza que los emails de Miguel Blesa justifiquen su ingreso en prisión", *El Mundo*, 2013/06/07.

Beraz, sakabanaturik dauden zenbait manutatik at, ez dugu berariazko erreferentzia edo araurik aurkituko posta elektronikoaren inguruan. Bestalde, ikusiko dugunez, doktrinan ez dugu erantzun argirik eta jurisprudenzian erantzun zehaztugabeak daude. Ondorioz, elementu horri eman behar zaion trataera argitzea garrantzitsua iruditzen zaigu, eta ideia horretatik abiatuz, artikulu honi ekin diogu. Honen bidez, elementu horren aurrean ari diren operatzaile juridikoentzat jarraitzea posiblea izango duten lerro bat marraztea dugu helburutzat.

Testuinguru horretan kokatzen da posta elektronikoaren froga-balioa edo indarra. Hau da, prozesu zibil batean zein intzidentzia edo ondorio dituen, beraz, jurisdikzio horretara mugatuko gara. Horretarako, alde batetik, alderdiek zein frogabideren bidez eta fisikoki nola aurkeztu beharko duten landuko dugu. Baita epaileak froga horren aurrean zein balio aitortu behar dion ere, hots, legearekin bat zein puntutaraino lotuko duen edota bere esperientzia maximen bidez baloratuko duen. Argi dago, ezinbestekoa izango dela zehaztea zein frogabideren aurrean gauden.

2. Zenbait kontzeptu eta testuinguru normatiboa

A) *Email* edo posta elektroniko kontzeptua

Zuzenbide-zientzian, oro har aritzean eta, bereziki, hausnarketak egitean, funtsezkoa da aztergaien kontzeptuak argitzea; izan ere, hitz arrunten esanahitik haratago daude arlo hauek, ñabardura juridikoen garrantzia eskuratuz. Horrela, alde batetik, irakurleak argi edukiko du zein kategoriaren aurrean aurkitzen garen eta ulerkuntza erraztuko da; bestetik, kontzeptuak ematea beste kategoriak bereizteko baliagarri da. Hortaz, eraentza zehazteko lehen pausoa da.

Gure lana ez da ezberdina izango eta, horregatik, lehendabizi, gure aztergai izango den posta elektronikoaren kontzeptu juridikoa zehaztuko da. Kontuan eduki behar dugu lehen pauso hau ez dela konplexua izango, herritar gehienok ezagutzen baitugu figura hori. Hala ere, komenigarritzat jotzen dugu zenbait argibide ematea, ager daitezkeen zalantza posibleak argitzearren. Horretarako, abiapuntu izango dugu hiztegiak era arruntean darabilena, esaterako, *Harluxet* hiztegi entziklopedikoak definizio hau ematen digu: «Ordenadore edo erabiltzaile anitzeko sareetako aplikazioa, modu pertsonalizatuan idatzitako mezuak bidali, hartu, kontsultatu eta ezabatzeko aukera ematen duena»⁴. Bestetik, Espainiako Errege Akademiaren hiztegian beste esanahi hau plazaratzen da: «Sistema de comunicación personal por ordenador a través de redes informáticas»⁵. Argi dago, bi definizioek alderdi anitz dituztela komunean: komunikazioa modu pertsonalean egiten da, ordenagailuz eta sare informatikoen bidez.

Baina definizio horiek ez digute eduki nahikoa ematen, eta juridikoki kontzeptu zehatzago bat eman beharra dugu. Maiz arauak euren aplikazio-esparrurako kontzeptuak aurreikusi ohi dituzte eta horrela agertzen zaigu 2002ko uztailaren

4. Definizio hori jasotzen da Harluxet hiztegiaren webgunean, <<http://www1.euskadi.net/harluxet/>> orrialdean eskurgarri.

5. Hiztegi horren baliabide elektronikoa <<http://www.rae.es>> web orrialdean dugu.

12ko Zuzentaraua⁶, barrukotasunaren eta komunikazio elektronikoen zuzentarau moduan ezagutua, zeinak kontzeptu zehatzago bat eskaintzen duen bere 2. artikuluko h) puntuan, mezu elektronikoen edukia zehaztuz:

Correo electrónico: todo mensaje de texto, voz, sonido o imagen enviado a través de una red de comunicaciones pública que pueda almacenarse en la red o en el equipo terminal del receptor hasta que éste acceda al mismo.

Horregatik, lan honetan arau horrek jasotzen duen ideia aintzat hartuko dugu eta posta elektronikotzat joko dugu modu pertsonalean komunikazio-sare publiko baten bidez igorritako mezu oro, haren edukia testua, irudia zein soinua delarik eta hartzailearen terminalean mantenduko dena bertara jo arte.

Posta elektronikoen egiturari dagokionez⁷, alde batetik, goiburua, eta, bestetik, mezuaren gorputza bereizi behar ditugu. Lehenengoak, ingelesezko aforismoak erabiliz, honako datuak jaso ohi ditu: igorlea (*from*), hartzailea (*to*), beste ezkutuko hartzaileak (*Cc*), gaia (mezuaren edukiaren azalpen laburra), data eta ordua. Bestalde, mezuaren edukiak edo gorputzak igorri nahi den informazioa, azalpena edo ideia jasotzen du. Azkenik, beti gehitzen ez diren arren, sarri artxiboak atxikitzen zaizkie *e-mailei*.

Aurrera jarraitzeko funtsezkoa da posta elektronikoen funtzionamendua azaltzea, hau da, *e-mail* bat igortzea zertan datzan edo hark jarraitzen duen bidea. Hala ere, alor informatikoan sakonki aritzea ez denez gure arduraren nagusia, ahalik eta argien planteatzen saiatuko gara, edonor jabetu dadin funtzionamenduaz. Lehenik eta behin, subjektu igorleak posta elektronikoa bat eratu eta Internet sarera igortzen du, bere zerbitzariak jaso eta kudeatuko du. Zerbitzariak, hartzailearen helbide elektronikoen arabera, zein zerbitzariri dagokion kudeaketa zehaztu eta bertara igorriko du, zuzenean zein zeharka (zerbitzari anitzen bitartez). Edozein kasutan, hartzailearen zerbitzariak jaso eta gordeko du. Horrek, subjektu hartzaileak bere posta elektronikoa aktibatzean, gordetako posta bidaliko dio. Hartzaileak jasotzen duen postaren parte izango da hau guztia, beraz, bertan jasoko dira goiburua, mezuaren edukia eta, azkenik, datu horiek guztiak. Beraz, bi hitzetan, igorleak zerbitzarira bidaliko du eta horrek, berriz, zerbitzari hartzaileari, subjektuak noiz zabalduko duen zain. Horrez gain, hartzailearen helbidea oker balego, igorleak bueltan mezu bat jasoko luke, helbide horren existentzia eza jakinaraziz.

Datu horiek iturri-kodean jasoko dira, hots, igorpen- eta harrera-protokoloek postak jasotzen dituztenean sortzen dituzten erregistroak dira. Hasiera batean ikusten ez badira ere, mezu beraren informazioaren parte dira. Bertan jasotzen diren edukiak dira: ordenagailu igorlearen identitatea eta IP (*Internet Protocol*) helbidea, postaren titularraren identitatea, igaro dituen zerbitzari guztien datuak, harrera-ordenagailuaren identitatea eta posta-hartzailearen titulartasuna. Halakoak

6. Haren izen osoa da 2002/58/CE Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 12ko Zuzentaraua, komunikazio elektronikoen alorrean datu pertsonalen trataera eta barrukotasun-babesaren ingurukoa, 2002ko uztailaren 31ko 201/37 Europar Komunitatearen Aldizkari Ofizialean argitaratua.

7. Martínez de Carvajal Hedrich, E. (2013): "Valor probatorio de un correo electrónico", *Diario la Ley*, **814**, lanari jarraituz.

lortzeko ohikoena peritu informatikoengana jotzea da, nahiz eta erraztasun handiz lor daitezkeen.

Azkenik, kontuan eduki behar dugu *e-maila* dokumentu elektronikoaren artean —baita dokumentu multimedia ere deituak— dagoela. Dokumentu horiek zer diren 59/2003 Legeak, abenduaren 19koak, sinadura elektronikoaren ingurukoak, esaten digu: «Agiri elektronikotzat hartzen da formatu jakin baten arabera euskarri elektronikoa artxibatuta dagoen eta identifikagarri den edozein motatako informazioa»⁸. Horrez gain, doktrinak posta elektronikoa dokumentu elektronikoaren⁹ artean kokatzen du¹⁰, legeak eskainitako definiziora egokitzen den isla. Azken batean hedatutako sistema bat da, eta ez da arraroa haren gaineko aipamenak topatzea dokumentu elektronikoaren inguruan diharduten lanetan. Ideia bera eraman dezakegu jurisprudenzia, zeinak *e-maila* dokumentu elektronikotzat jotzen baitu. Adibidez, Cadizko Entzutegi Probintzialak (hemendik aurrera, EP) modu argian esan zuen bere 79/2008 epaian, aurkaratutako frogaz auzigai zelarik, posta elektronikoa dokumentu elektronikoa dela¹¹. Gainera, Jaime Bennasar-ek¹² egiten duen dokumentu elektronikoaren definizioan, *e-maila*, sare baten bidez datuen transferentzia edo komunikazioan dantzan dokumentuen artean kokatzen du. Mota horretako eredurik argiena posta elektronikoa izango litzateke egile horren hitzetan.

B) Marko legala

Atal honetan aintzat hartu beharreko arauak jasoko ditugu, hau da, lanaren gida normatiboa planteatuko dugu. Horretarako posta elektronikoaren balioa argitzeko kontuan izan behar diren oinarri juridikoak azalduko ditugu, zeren prozesuaren alderdientzat baliagarriak izango baitira.

Lehenik eta behin, lan honen ardatz den arauari aipamena egin behar zaio; 1/2000 Legea, urtarrilaren 7koa, prozedura zibilaren ingurukoak (hemendik aurrera, PZL). Zehazki frogaren inguruan aritzen diren artikulua aintzat hartuko ditugu, 299-386 bitartekoak, hain zuzen ere. Kode Zibilean (hemendik aurrera, KZ) ere frogan balorazio-arauak aurreikusten dira, kontuan eduki beharrekoak.

8. Aipatutako legearen 3.5 artikulua: «Se considera documento electrónico la información de cualquier naturaleza en forma electrónica, archivada en un soporte electrónico según un formato determinado y susceptible de identificación y tratamiento diferenciado».

9. Badirudi, ideia hori baliatuko duela etorkizuneko merkataritza-kodeak, *Merkataritza zuzenbideko ataleko kodifikazio batzorde orokorrak egindako Merkataritza Kode Proposamenari* jarraituz, 421-7 artikulua dioenez: (Dokumentu elektronikoa eta sinadura elektronikoa) «Toda comunicación electrónica goza de la naturaleza de documento electrónico de acuerdo con las disposiciones aplicables de la legislación sobre firma electrónica».

10. Guztien artean, Jaime Bennasar, Andrés: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, op. cit., 127. or. edo/eta de Urbano de Castillo, Eduardo: «La regulación legal de la prueba electrónica: una necesidad pendiente», *Diario La Ley Penal*, 82/2012 zk.

11. Cadizko EPE 79/ 2008 (2. Atala), otsailaren 25koa: «Están constituidas por copias privadas obtenidas de documentos electrónicos (e-mail o correos electrónicos) que no consta que posean firma electrónica reconocida, y que han sido obtenidas a través de la impresora del ordenador».

12. Jaime Bennasar, Andrés: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, op. cit., 196. or. «Los documentos informáticos que consisten en la comunicación o transferencia de datos o a través de una red, ya sea (...) o internet (...). El más usual es el correo electrónico».

Horrez gain, 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoen gainekoa erabiliko dugu. Lege horrek sinadura elektronikoen eraentza jasotzen du, galdakizun europarrei erantzuna emateko. Hots, zein dokumentuk jaso dezaketen, nola ezartzen den eta dakartzan ondorioak arautzen ditu. Beraz, posta elektronikoa jaso dezakeenez sinadura elektronikoa, horrek postan sortzen dituen efektuak ezinbestez aztertu beharko dira, bereziki, prozesu judizialean¹³.

Bestalde, ordenagailuen edo bestelako baliabide teknologikoen bidez egindako kontratuen inguruan ari garenean, beste bat jaso behar dugu: 34/2002 Legea, uztailaren 11koa, informazioaren gizarte eta merkataritza elektronikoen ingurukoa, ondoren, 256/2007 Legeak garatzen duena. Araudi horrek Kode Zibilean ere ondorioak ekarri zituen, 1.262 artikulua aldatu baitzuen¹⁴. Hortaz, kontratu bat egitearen frogatzat *e-mail* bat aurkeztean, arau hauek aintzat hartu beharko ditugu.

Beste jurisdikzioei dagokienez —gure aztergai ez den arren—, bakoitzari dagokion legea aplikatu beharko zaie, hala nola Prozedura Kriminaleko legea¹⁵, Jurisdikzio Sozialekoa... Betiere, PZLk ordezko izaera duelarik (lege horren 4. artikulua), ondorioz, neurri batean artikuluan plazaratutako ideiak beste eremuetara eraman ahal dira.

Azkenik, osagarri moduan, garrantzitsua iruditzen zaigu barrukotasunaren eta komunikazioen isilekotasunari aipamena egitea. Izan ere, eskubide horiek urratuz gero, froga ez-zilegi baten aurrean geundeki. Ondorioz, eskubide horiek posta elektronikoa mugatu egiten dute eta berariazko erreferentzia dugu 2002/58/CE Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 12ko Zuzentarauan, komunikazio elektronikoen alorrean datu pertsonalen trataera eta barrukotasun-babesaren ingurukoan¹⁶.

C) Froga Zuzenbidearen oinarritzko hausnarketa

Froga-jarduera prozesuaren baitan ematen da eta alderdiek beraiek alegatutakoa egia dela erakutsi edo egiaztatu behar dute. Izan ere, arau baten ondorioak aplika daitezten alderdiek egitatezko egoera hori demostratu beharko dute, eta hori frogaren bidez egiten da. Hortaz, planteatutako uzia edo erresistentzia justiziazkoa izan daiteke, baina demanda edo erantzunean jasotako egitateak frogatzen ez badira, ez da emaitza prozesal faboragarririk lortuko¹⁷. Argi dago, frogak garrantzi nabarmena duela prozesu judizialean, haren emaitza baldintzatzeraino.

13. Bi elementu horien erlazioa argi jasotzen du Zaragozako Entzutegi Probintzialaren 18/2005 Epaiak, urtarrilaren 14koak: «Posta elektronikoa dagokionez, ez du sinadura elektronikoen ziurtagiriak bermatzen, baina horrek ez du eragozten froga moduan baloratzea».

14. Gogoratu Kode Zibilaren 1.262. artikulua zera dioela: «Kontratuak eragingailu automatikoen bitartez egin badira, adostasuna dago onarpena adierazten denetik».

15. Adibidez, PKLn ezartzen den sistema balorazio askea da, 741. artikulua: «El Tribunal, apreciando, según su conciencia las pruebas practicadas en el juicio».

16. Gai horretan sakontzeko: Belda Pérez-Pedrero, Enrique: "El derecho al secreto de las comunicaciones: algunos apuntes sobre su protección en las relaciones por correo electrónico", *JIS'2000: III Jornadas sobre informática y sociedad*, Comillaseko Unibertsitate Pontifikala, Madril 2001, 73.-86. or.

17. Zentzu berean, Bonet Navarro, Joan: *La prueba en el proceso civil: cuestiones fundamentales*, Difusión Jurídica, Madril, 2009, 44. or.

Gainera, froga-arauak arau prozesalak dira, eta, ondorioz, zuzenbide prozesalaren eremuan kokatzen ditugu, ondorioak prozesuaren gainean zabalduz.

Ildo beretik, frogaren objektuaz mintzo garenean, frogaren gaitik bereizi behar dugu. Lehena, abstraktuan aritzen da prozesu guztietan frogatu behar denaren inguruan; bigarrenak, berriz, prozesu zehatz batean zer frogatu behar den adierazten digu. Hortaz, frogaren objektuaz mintzo garenean, egitate eztabaidatuez ari gara eta horiek frogatzeko ekarriko dituzte alderdiek *e-mailak* prozesura. Beraz, froga ekartzea zama duenari dagokio, hau da, alderdi bakoitzak alegatu dituen egitateak demostratzeko frogak ekarri beharko ditu. Hots, demandanteari dagokio, froga-egitateok ondorioztatu ohi dute demandaren objektua den uziaren ondore juridikoa eta, demandatuari, berriz, ondorio juridiko hori eragozteko alegatzen dituen egitateen gaineko froga¹⁸.

Azpimarratu beharra dago, frogabide eta froga-iturrien arteko ezberdintasuna, kontzeptu juridikoa eta estrajuridikoa, hurrenez hurren¹⁹. Izan ere, posta elektronikoz mintzo garenean froga-iturri batez ari gara, errealtatean existitzen den elementu bat baita²⁰. Frogabideak, berriz, prozesuan baino ez daude eta iturriak prozesuan barneratzeko sistema edo baliabidea dira. Horregatik, legeak tasatu egiten ditu, *numerus clausus*²¹ sistema baten bidez eraenduz. Hortaz, posta elektronikoa errealtatean dago (froga-iturri da) eta prozesura ekarri beharko da nolabait (froga-bidea). Horiek PZLren 299.1 artikuluan zerrendatzen dira: 1) alderdien itaunketa edo galdeketa, 2) dokumentu publikoak, 3) dokumentu pribatuak, 4) peritu edo adituen irizpide-txostenak, 5) azterketa edo ikuskapen judiziala, 6) lekukoaren galdeketa edo itaunketa, eta 7) soinua edo irudia erreproduzitzeko bideak eta artxiboko tresnak.

Prozesura ekartzen diren frogen hartzailea epailea da eta haien gaineko balorazioa egin beharko du. Horrela, bere buruari galdetuko dio froga horien bidez datu faktikoen egiaztapena eman den ala ez²². Hori guztia epaian islatuko du. Gogoratzea bestetik, Espainian balorazio-sistema mistoa dela, sistema askea eta legala uztartuz²³. Lehenengoan, epaileak froga bere esperientziaren arabera baliosten du, bere kritika zintzoaren arabera, hots, legeak bere esperientzian zehar eskuratu dituen maximen aplikazioa ahalbidetzen dio. Bestean, berriz, zenbait froga zehatzen kasuan legeak epaileari esaten dio zein balio eman behar dien, horrela da, zehazki, dokumentu publiko, pribatu eta alderdien itaunketan. Hortik at balorazio askea da errege. Azkenik, maiz, geroz eta ohikotasun handiagoarekin auzitegien praktikan, froga baloratzerakoan balorazio bateratuaz mintzo izan da.

18. Bikainki mintzatzen da, Montero Aroca, Juan: *La Prueba en el Proceso civil*, Civitas, 3. argitalpena, Madril, 2002, 95. or.

19. Ideia hori jarraituz, AAAA (Zuz. Abel Lluch, Xavier eta Picó i Junoy, Joan), *Objeto y carga de la Prueba Civil*, Bosch Procesal, Bartzelona, 2007, 24. or.

20. Abel Lluch, Xavier; "Repensando el concepto de documento", *Diario la Ley*, 7667/2011 zk, 1. or.: «(...)la aparición de nuevas fuentes de prueba, como pueden ser a título de ejemplo, una página web, un correo electrónico».

21. Nahiko eztabaidatsua den arren, zenbait egilerentzat, kasu honetan tesi hori hartuko dugu aintzat, besteak beste, Montero Aroca, Juan: *La Prueba en el Proceso civil*, *op. cit.*, 112 or. lanari jarraituz.

22. Honen eredu, Bonet Navarro, Joan: *La prueba en el proceso civil: cuestiones fundamentales*, *op.cit.*, 237. or.

23. Sakontzeko, AAAA (Zuz. Abel Lluch, Xavier eta Picó i Junoy, Joan), *Objeto y carga de la Prueba Civil*, *op.cit.*, 29. or.

3. Prozesuan sartzeko bidea

Orain arte zehaztatutakoa laburtuz, posta elektronikoaren esanahia, hari aplikagarri zaion araudia eta prozesuan gauzatzen den froga-araudia zertan datzan aztertu dugu. Oinarri horrekin artikulua honen mamian sartuko gara, posta elektronikoa froga moduan prozesuan sartzeko bidean, alegia; izan ere, «arazotsua da nola sartu froga-iturri berri bat legeak araututako bideetako baten bidez»²⁴.

Aurreko puntuan aipatu dugun moduan, posta elektronikoa froga-iturria da eta ezinbestekoa da errealitate hori prozesura ekartzea tasatuak diren frogabideen bidez. Ondorioz, PZLren 299. artikulua aurreikusten duen aukera batean barneratu beharko da. Hautu hori erabakigarria izango da haren gainean egiten den balioespena egiteko; izan ere, legeak ezarritako balorazioa soilik frogabide batzuen kasuetarako aurreikusten da.

Hala ere, eztabaida hau ez da dirudien bezain zabala; izan ere, azterketa arin baten ostean arazorik gabe muga daiteke, zenbait kanporatuz. Azken batean, prozesura posta elektronikoa ekartzen dugunean, haren ezaugarrietara egokitzen den frogabidea baliatu beharko dugu, horrek ahalbidetzen duen dokumentu publikoa, alderdien itaunketa, peritu edo adituen irizpen-txostenak, azterketa judiziala eta lekukoen galdeketa at uztea. Ez da azalpen luzerik behar hautaketaren zergatiaz jabetzeko, lagatzen diren biak (dokumentu pribatua edo soinua edo irudia erreproduzitzeko bideak eta artxiboko tresnak) egokienak baitira zalantzarik gabe posta elektronikoa prozesura eramateko. Gainerakoak, ondorengo momentu batean ekarriko ditugu frogabide lagungarri moduan, hots, frogaren gainean praktikatuko den froga moduan.

Hortaz, eztabaida mugatua dago. Geure buruari galdetzen baldin badiogu zein frogabideri egokitzen zaion *e-mail* bat, dokumentu-froga (dokumentu pribatua) edo soinua edo irudia erreproduzitzeko bide eta artxiboko tresnen artean erabaki beharko dugu. Ez gaude eztabaida makal baten aurrean; izan ere, balorazio legalen kasu ugariak dokumentuen eremuan aurkitzen ditugu eta *e-mail*ari izaera hori aurreikusteak sekulako bultzada emango lioke alderdietako bati faboragarria den ebazpena lortzeko bidean. Horren azterketari ekingo diogu berehala.

A) Dokumentu pribatuen eta PZLko 299.2ko datuak gordetzeko tresna frogabideen arteko dikotomia

Sarreran azaldu dugun bezala, posta elektronikoa barneratzen duten frogabideak mugatuak daude. Baina auzi horri erantzuna ematea ezinbestekoa da, aurkakoak froga horren ukapena ekarriko bailuke, defentsa-eskubidea urratuz. Hala ere, egoera hori ez da baketsua eta ez dute ildo guztiek erantzun bakarrera eramaten.

Hain da nabarmena eztabaida, ezen doktrina eta jurisprudenzian ere islatzen baitira bi norabide horiek, hau da, dokumentuen eta datuak gordetzeko tresnen arteko eztabaida. Horrela, gai honen aurrean dauden iritzi ezberdinak, hiru

24. Hitzez hitz, Montero Aroca, Juan: *La Prueba en el Proceso civil*, op. cit., 112. or.

nagusitan sailka daitezke: a) dokumentu-frogabidetzat jotzen dutenak²⁵, b) PZLren 299.2 artikuluko bidea egokia dela deritzotenak²⁶, eta c) «teoria ekletikoa» dei genezakeena. Azken horren aburuz, aurkezte-formaren arabera dokumentua edo artxibo-tresna izango da, baina dokumentuen arauak aplikatuko zaizkie guztiei²⁷. Azken finean, auzi honen atzean dokumentu kontzeptuaren inguruko eztabaida dugu²⁸, haren zabalera, hain zuzen ere. Hots, kontzeptu hertsia bat defendatzen dutenek fisikoki idatzitako dokumentuak baino ez dituzte onartuko; bestiek, berriz, zabalagoa aurkezten dutenez, dokumentu elektronikoa eta antzekoak onartuko dituzte dokumentutzat. Beraz, modu horretan prozesuan aurkezteko beta emanez.

Hala ere, ez dago lan zabalik kontu hau aztertzen duenik, are gutxiago erantzun argirik plazaratzen duenik. Horregatik, teoria gehienak dokumentu elektronikoen inguruan egindakoak badira ere, dokumentu telematikoa aplikatuz aplikatuko ditugu, tokian tokiko ñabardurak eginez.

Koska da PZLk ez dituela zehazten dokumentu pribatuaren kontzeptua, izaera edo ezaugarriak, beraz, modu zabalean zein hertsian ulertzeko aukera dagoela. Izan ere, dokumentu publiko ez diren guztiak dokumentu pribatutzat jo daitezkeela aditzera ematen du bere 324. artikuluan. Hau da, dokumentu publikoa definitzen du eta pribatua, berriz, modu negatiboan kalifikatzen du, hau da, lehena ez den beste guztia. Horrek dakar *e-maila* barneratzeko zein kanporatzeko beta dagoela.

Posta elektronikoa PZLren 299.2 artikulutik bideratu behar delako tesiari dagokionez, haren oinarria PZLren hitzaurrean dugu, non garaiko legegileak adierazten duen dokumentu kontzeptua ezin dela behar baino gehiago behartu edo bortxatu:

«Agiri-frogara ezin izango da bildu gainerako frogabideetara bildu ezin eta egitateen egiazkotasuna finkatzeko prozesura ekarri den guztia».

Ondorioz, arau hori kontzeptu arrunt baten aldekoa da eta izaera horretatik at gelditzen diren baliabideak beste eremuetara eraman beharko lirateke, posta elektronikoa barne. Ideia horretaz Montero Aroca²⁹ jabetzen da eta dokumentu elektronikoen baliabideak PZLren 299.2 artikuluan jasotako frogabide berrien

25. Ideia honen defendatzailea dugu, Nieva Fenoll, Jordi: *La valoración de la prueba*, Marcial Pons, Madril, 2010, 317. or.

26. Tesi tradizional hau formultzen dutenen artean, besteak beste: Montero Aroca, Juan: *La Prueba en el Proceso civil*, op.cit., 367. or. edo Abel Lluch, Xavier: "Repensando el concepto de documento", op. cit., 8. or. («Se ha afirmado acertadamente que «el concepto procesal civil de documento se contrae para dar cabida exclusivamente a aquellos instrumentos de fijación de la realidad que consistan en la fijación de palabras, si bien escritas en papel u otro material similar»).

27. Erdibideko ideia hori bereziki ondo jasotzen du Jaume Bennasarrek: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, op. cit., 85. or: «Tanto es así, que si son esgrimidos en documentos en otro formato que no sea papel, pasarán de inmediato al régimen correspondiente a los indicados instrumentos, sin perjuicio de que se les apliquen, de igual modo, las normas generales sobre tratamiento jurídico procesal de los documentos escritos a fin de integrar todos los aspectos».

28. Posizio doktrinal hauek jorratzen ditu Abel Lluch-ek: "Repensando el concepto de documento", op.cit, 1.-2. or.

29. Montero Aroca, Juan: *La Prueba en el Proceso civil*, op. cit., 367. or.: «(...) lo contrario exigiría considerar a los instrumentos informáticos documentos sin más, lo que la LEC no asume».

eremuan kokatzearen alde agertzen da. Haren aburuz, bide hauek dokumentu-frogabidetzat hartzea legeak dioenari jaramonik ez egitea litzateke, eta halako interpretazioak onartezinak dira. Legearen hitzez-hitzezko interpretaziora egon behar da³⁰.

Antzeko zerbait esaten du, modu gaurkotuagoan, Abel Lluchek;³¹ dokumentu kontzeptua zabaltzeko beharraz jabetzen da, baina egungo kontzeptua hertsia dela defendatzen du eta kategoria hori zabaltzea nahi izanez gero PZL erreformatu beharko litzatekeela. Hortaz, haren esanetan, halakoak prozesuan barneratuko lirateke PZLren 299.2 artikulua oinarri moduan erabiliz.

Guztiarekin, arauaren interpretazio teleologiko (KZren 3.1 artikulua) batean oinarritzen dira iritzi hauek, horrekin bat garaiko legegilearen espiritua aintzat hartuz, dokumentua modu hertsian konfiguraturik. Legegileak, garai hartan, PZLren zioen adierazpenari eutsiz, dokumentuen kontzeptu hertsia planteatu nahi izan zuen, beste frogabide teknologikoak PZLren 299.2 artikulua eramanen.

Ildo beretik, SEPIN argitaletxe juridikoaren kontsulta pare bat dugu, 2006ko abendu eta maiatzeko argitaratuak³². Bertan bere iritzia edo jarraitzen duen ildo agertzen du: posta elektronikoa baliozko frogabidetzat jotzen du PZLren 299.2 artikuluan oinarrituz. Hortaz, haien artean posta elektronikoa frogabide berri moduan barneratzen da prozesuan eta horiei egokitzen zaizkien arauak suertatzen zaizkio aplikagarri.

Ezin daiteke uka dokumentu elektronikoen erabilera, azken urteetan, areagotu egin dela eta horien ugaritzea bilatu duela legegileak gauzatutako araugintzaren bidez. Horrela, horien erabilera zabaltzea nahi izateak dokumentuekin berdintasunean aritzea eskatzen du. Hala izan ezean, dokumentu berri hauek erabiltzen dituztenak kaltetuak suertatuko lirateke tradizionalak erabiltzen dituztenen aldean.

Horregatik, funtsezkoa da 59/2003 Legeari, sinadura elektronikoen gainekoari, begirada bat ematea. Lege horren helburuetako bat komunikazio telematikoen segurtasuna ematea da eta hala jasotzen da haren zioen adierazpenen³³. Jakin badakigu *e-maila* dokumentu elektronikoa dela, beraz, arau hori guztiz aplikagarri zaio eta sinadura elektronikoen objektu izan daiteke arazorik gabe.

30. Gainera, berariaz egiten dio erreferentzia egile berak beste obra batean, Montero Aroca, Juan, Gomez Colomer, Juan Luis; Barona Vilar, Silvia eta Calderón Cuadrado, María Pía: *Derecho Jurisdiccional II: Proceso civil, Tirant lo Blanch*, 20. argitalpena, Valentzia, 2012, 298. or., datuak gordetzeko tresnen artean adibide moduan planteatzen duela. Bertan, beste egile batzuekin batera, posta elektronikoa PZLren 299.2 artikulua eremuan kokatzen du. Hala ere, aipatzekoa da azken testu horretan jada dokumentu elektronikoen aurrekustean dituela dokumentuen artean, hau da, bere pentsamenduak eboluzionatu duela dirudi.

31. Abel Lluch, Xavier: "Repensando el concepto de documento", *op. cit.*

32. SEPIN argitaletxearen kontsultak 2006ko abenduko SP/CONS/51055 eta urte bereko maiatzeko SP/CONS/47991: «El criterio de SEPIN expuesto ya reiteradamente es que, sin duda, los correo electrónicos son un medio de prueba válido» eta «sin duda, los correo electrónicos son un medio de prueba válido (art. 299.2)», hurrenez hurren.

33. 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoen gainekoa, zioen adierazpena: «(...) exige la generalización de la confianza de la ciudadanía en las comunicaciones telemáticas (...) respuesta a esta necesidad de conferir seguridad a las comunicaciones por internet surge, entre otros, la firma electrónica».

Hori aditzera ematen da legearen 3. artikuluan, bereziki, 5 eta 6 ataletan, non dokumentu elektronikoa definitu eta dokumentu pribatuaren euskarri izateko aukera arautzen den («dokumentu elektronikoa honakoen euskarri izango da: (...) c) dokumentu pribatua»). Kontzeptu horiek guztiz aplikagarri zaizkio posta elektronikoari, hau da, ziurtagiri hori jaso dezake, haren edukia azaldu dugunari egokitzen baitzaio. Hala ere, alor prozesalean nabarmenagoa da aipatutako artikulua-ren zortzigarren atala, zeren sinadura honen ondore prozesalak argitzen baititu. Beraz, «elektronikoki sinatutako datuak daramatzen euskarria dokumentu-frogatzat onartuko da epaiketan» adierazpenaren bidez, sinaduradun *e-mail* hauen bide prozesala zehazten du, dokumentu-frogatzat jo daitezkeelarik. Gainera, bide hori edozein sinaduradun postak egin dezake, ez baita bereizketarik egiten.

Idea hori, 59/2003 Legeak PZLn egin zituen aldaketekin lotu behar dugu; izan ere, arau horrek xedapen berri bat txertatu zuen legean, 326. artikulua, hain zuzen ere³⁴. Arau berri hori dokumentu-frogabidea arautzen duten manuen eremuan kokatzen da eta bertan berariazko erreferentzia egiten zaie dokumentu elektronikoei. Hau da, Prozedura Zibileko Legeak berariazko tokia aurreikusten du dokumentu berezi hauentzat. Ondorioz, dokumentu elektronikoak dokumentu-frogabidetzat joko ditugu zuzenbide prozesalean.

Azalpenaren puntu honetan, legea eskuan dela, ukaezina da sinadura daraman dokumentu elektronikoa dokumentu-froga dela. Ondorioz, manu hauek kolokan jartzen dute ildo tradizionalak defendatutakoa; izan ere, ziurtagiri hau dutenean, ezingo genituzke datuak gordetzeko tresna gisa aurkeztu, legeak frogabide dokumentalera bideratzen baititu. Hortaz, egungo egoeran, dokumentuen kategoria ireki egin da, ideia tradizionala ukatuz, PZLk dokumentu pribatuen inguruan jasotzen duen artikulatuarekin bateragarri delarik. Kasu honetan, sinadura elektronikoa duten *e-mail*etan erantzuna garbia da: dokumentu pribatu froga baten aurrean gaude. Kontrakoa argudiatzea *contra legem* interpretazioa litzateke.

Gainera, 34/2002 Legeak, uztailaren 11koak, informazioaren gizarte eta merkataritza elektronikoaren ingurukoak, bere 24.2 artikuluan ondorengo dio: «Edonola ere, bide elektronikoz egin den kontratu baten euskarri elektronikoa dokumentu-frogatzat onargarri izango da epaiketan». Hau da, euskarri elektronikoan egin den kontratua dokumentutzat jotzen da eta euskarri horien artean *e-mail*a dago. Ondorioz, posta elektronikoaren bidez kontratua burutzen badugu, bitarteko hori dokumentutzat joko da.

Hala ere, horrek ez du argitzen sinadura elektronikorik ez duten edo kontraturik burutzen ez duten posten kasua; izan ere, erabil ditzakegun arauak ez dute erantzun zehatzik jasotzen. Azken finean, erabiltzen ditugun *e-mail* gehienek ez dute sinadura elektronikorik eta operazio garrantzitsuenetarako baino ez dugu erabiltzen baliabide hori. Adibide moduan, pentsa dezagun norberak eguneroko bizitzan zehar bidalitakoetan; erraz aski ikusiko dugu sinatutakoak ale txiki bat

34. 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoaren gainekoa: 10. Xedapen gehigarria: «Modificación de la Ley de Enjuiciamiento Civil. Se añade un apartado tres al artículo 326 de la Ley Enjuiciamiento Civil con el siguiente tenor: “Cuando la parte a quien interese la eficacia de un documento electrónico lo pida o se impugne su autenticidad, se procederá con arreglo a lo establecido en el artículo 3 de la Ley de Firma Electrónica”».

baino ez direla. Beste era batera esanda, Espainian ez dago behar bezainbeste zabaldua sinadura elektronikoa, horregatik, ugariak «arruntak» ditugu. Beraz, hedapen horrek haien azterketa behartzen du.

Horregatik, adierazten du Nieva Fenol-ek³⁵ sinadura elektronikoaren legeak eta haren gaineko aldaketek ondorio garrantzitsuak izan dituztela zuzenbide prozesalean; izan ere, «ondore judizialearako erabat berdindu zituzten paper-dokumentuak eta multimedia-dokumentuak». Horretan oinarrituz, PZLren 382-384 bitarteko artikulua gehiegizkotzat jotzen ditu, nahastu baino egiten ez dutela defendatuz eta «*lex posterior*-a dela-eta, isilbidez derogatuak ulertuz»³⁶. Beraz, harentzat erantzuna argia da eta ez dago eztabaidarik; izan ere, datuak artxibatzeke tresna horiek egun ez dira baliagarri.

Praktikan, alderdiek, maiz, ekartzen dituzte epaiketetara *e-mailak* eta, horregatik, horien inguruan mintzatzen diren sententziak aztertzea baliagarri izan daiteke. Azken finean, prozesu batean aurkezten denean frogatzea, trataera prozesal bat ematen zaio, jurisprudentziaren bidez auzi honi erantzun emanez.

Ez dugu teoria zabalik topatzen jurisprudentzian; izan ere, gai nahiko baketsua dirudi epaile zibilarentzat *e-mailak*, noizbehinka eztabaidaren bat atzematen den arren. Epaitegien eguneroko funtzionamenduari so eginez, esan genezake *e-maila* dokumentu-frogatzean jotzen duten sententziak ugariak direla.

Zentzu horretan, entzutegi probintzialen (hemendik aurrera EP) sententzien kasu ugari ditugu. Oso interesgarria suertatzen da Guadalajarako EPren 201/2012 epaia; faktura batzuen inguruan AGk egindako adierazpenak aipatu ostean, posta elektronikoa dokumentu pribatutzat jotzen du³⁷. Hortaz, epai horrek jurisprudentziak ezartzen duen ildo jaso eta aplikatzen du, posta elektronikoa dokumentuaren bidetik bideratuz.

Horrez gain, Cadizko EPren 79/ 2008 epaiak³⁸ figura honen inguruan dihardu, azalpena luzatuz eta dokumentu elektronikoei aipamena eginez. Epaiak *e-maila* edo posta elektronikoa dokumentu elektronikotzat jotzen du eta dokumentu-frogabidearen poderioz aurkezten den dokumentu pribatu moduan aztertzen du. Nahiz eta alderdi batek aurkeztutako posten balioa ukatu, auzitegiak dokumentu pribatutzat jo zituen eta edukia eta *e-mailaren* hartzaileak jaso izana aztertzer mugatu zen. Granadako EP 5/2010 epaian ere aipamenak aurkitzen ditugu gai honen inguruan, bertan posta elektronikoa dokumentu telematikoko moduan jasotzen da, frogatze nahikotzat jotzen³⁹. Beraz, dokumentu-frogabidearen bidez barneratu zen

35. Nieva Fenoll, Jordi: "Práctica y valoración de la prueba documental multimedia", *Actualidad civil*, 17/2009 zk., 1 or.

36. Nieva Fenoll: *La valoración de la prueba civil*, op.cit., 317. or.

37. Guadalajarako EPren (1. atala) 201/2012 epaia, irailaren 12koa: «Y efectivamente en este tipo de pruebas, admitidas jurisprudencialmente como documentos (...)».

38. Cadizko EPE 79/ 2008 (2. atala), otsailaren 25ekoa: «Es importante señalar que en el caso presente las pruebas documentales a las que se ha negado validez por el actor, están constituidas por copias privadas obtenidas de documentos electrónicos (e-mails o correos electrónicos)».

39. Granadako EP 5/2010 epaia (3. atala), urtarrilaren 13koa: «La documentación telemática como sistema de intercomunicación entre una y otra parte litigiosa mediante correo electrónico constituye, para este Tribunal, documentación suficiente».

prozesuan. Gauza bera aditzera ematen da Valentziako EPren 597/2009 epaian, azaroaren 10ekoan, sinadura elektronikorik ez duen *e-mail*ari dokumentuen arauak aplikatuz.

Gainera, *e-mail*a dokumentu-frogabidea dela aipatzen duten epaitegiak anitz dira, besteak beste, Kordobako EPren 298/2012 epaian, magistratuak ados agertzen dira *a quo* epailearekin: posta elektronikoa dokumentu-froga moduan aurkeztu behar da eta preklusio-unearen aurretik⁴⁰; Murtziako EPren 77/2013 epaiak posta elektronikoa dokumentu-frogatzat jotzen du⁴¹. Dokumentu-froga izatearen aipamen horiek Madrilgo EPren 171/2012⁴² eta 336/2012⁴³ epaietan ere baditugu.

Horren inguruan ez dira soilik entzutegi probintzialak aritu, gure auzitegi garrantzitsuenek ere aipamena egin diote kontu honi noizbait. Ez dugu doktrina zabalik topatzen, baizik eta aipamen laburra. Horren isla dira, AGEE 613/2011⁴⁴ (frogaren balorazio akastuna aztergai delarik, auzitegiak dokumentu-froga moduan aipatzen du) eta 198/2010⁴⁵ (aztergai diren dokumentuak zenbait *e-mail* direla dio). Ondorioz, Auzitegi Gorenaren aipamenek komunikabide hau dokumentu-frogatzat jotzearen aldeko joera erakusten digute. Zentzu negatiboan aztertuz gero, arraz zaila suertatzen da kontrako ildoari jarraitzen dion jurisprudentzia identifikatzea eta horrek indartu egiten du dokumentu-frogabide moduan ulertu behar delako ideia.

Azkenik, ezin dugu aurrera jarraitu jurisdikzio penalaren epai bati aipamenik egin gabe, AGren 346/1991 epaia⁴⁶, hain zuzen ere. Oso interesgarria da dokumentuen inguruan eskaintzen duen kontzeptu zabala. Horren arabera, dokumentuak edozein euskarri materiala du, orrialde batean idatzita edo jasota egotea ezinbesteko baldintza ez delarik. Hots, dokumentuaren izaera tradizionaletik aldentzen da. Hori gutxi balitz, epaiak dio:

Dokumentutzat izango ditugu prozedura elektronikoen logikoen bidez eratutako ezagutza- edo borondate-adierazpen oro eta beraien ulerkuntza/igorpena/eraldaketarako beharrezkoak direnean edonoren eskura dauden bitartekoak: ordenagailua, modem, fax...

40. Kordobako EPE 298/2012 (2. Atala), azaroaren 29koa.

41. Murtziako EPren 77/2013 epaia (1. atala), otsailaren 11koa.

42. Madrilgo EPren 171/2012 epaia (30. atala), martxoaren 30ekoa.

43. Madrilgo EPE 336/2012 (10. atala), maiatzaren 30ekoa: «La validez de tales correos, como documentos privados, puede ser considerada en relación con el resto de las pruebas practicadas».

44. AGE 613/2011 (1. Sala), irailaren 30ekoa.

45. AGren (Gela zibila, 1. atala), 198/2010 epaia, apirilaren 5ekoa. «Estos documentos consisten en los correos electrónicos que la recurrente y la recurrida se cruzaron inmediatamente antes de la formalización del pedido».

46. AGren (Gela penala, 346/1991 epaia, martxoaren 3koa: «(...) el concepto ya legal (art. 26 del nuevo CP se integra por las notas siguientes: que se trate de un documento en sentido estricto, entendiéndose por tal el escrito, en sentido tradicional, o aquella otra cosa que, sin serlo, pueda asimilarse al mismo, por ejemplo, un diskette, un documento de ordenador, un vídeo, una película, etc., con un criterio moderno de interacción de las nuevas realidades tecnológicas, (...), siempre que el llamado "documento" tenga un soporte material, que es lo que sin duda exige la norma penal. (...) habrá que colegir que son documentos todas aquellas declaraciones de voluntad o de conocimiento que se confeccionen por procedimientos electrónicos lógicos y que para su entendimiento y/o transmisión y/o transformación son necesarios instrumentos o medios que también están a disposición de cualquiera: ordenadores, modems, faxes...».

Beraz, epai zahar hori, adierazpen garrantzitsua dugu bere garairako eremu penalean, dokumentu elektronikoak ondore prozesaletarako dokumentutzat jotzeko ateak zabaldu baitzituen⁴⁷.

Arestian aipatu dugun moduan, bi teoria nagusi zeuden gaiaren inguruan, alde batetik, dokumentua zentzu hertsian ulertzen duten pentsamendu tradizionalak, eta, bestetik, dokumentu-frogabidea kategoria zabal moduan defendatzen dutenak. Bi ideia horien erdibidean kokatzen diren egileak ere badira; haien aburuz, froga elektronikoaren bidetik sartuko lirateke *e-mailak* epaiketara, baina dokumentuei gerturatzeko asmoz, haien legezko balorazio-arauak aplikatuko litzaizkieke. Ideia horretaz jabetzen da Ormazabal Sanchez⁴⁸, eztabaidatua izan ez den dokumentuaren lege-balorazio araua PZLren 299.2 artikuluko bitartekoei aplikatu behar zaiela mantenduz. Hala ere, eremu horretan (errekonozimendua) aitortzen du tesi hori, eta hortik at balorazio askearen alde agertzen da, dokumentuetatik bereiziz.

Kontuan eduki behar dugu ezen dokumentu pribatutzat jo eta analogikoki dokumentu hauen arauak aplikatzearen alde egiten dutenen tesien ezberdintasunak ondorio praktiko gutxi dituela. Izan ere, bide batetik zein bestetik jo, azkenean dokumentu pribatuentzat aurreikusitako balorazioa aplikatuko litzaieke.

Laburbilduz, *e-maila* dokumentu-frogabidea edo datuak gordetzeko tresna den inguruko auzia ez da baketsua, eta ildo guztiek ez dute bat egiten. Hala ere, azken urteetako legegintzak norabide garrantzitsu bat ezartzen du dokumentu elektronikoak dokumentu tradizionaletara gerturatzearen, bide telematikoa sustatzeko asmoz. Ondorioz, azken joera juridikoak aztertuz, esan genezake, dokumentu elektronikoa dokumentuen artean kokatu dela⁴⁹.

Azkenik, ikusi dugun moduan, auzitegiek posta elektronikoa dokumentu pribatu gisa tratatzeko joera garrantzitsua erakutsi dute eta horri jaramon egin behar zaio; izan ere, frogen egoera eta trataera prozesala auzitegien esku baino ez dago. Beraz, ideia hori indartzen da, bereziki, ez dugulako nabarmenki aurka egiten duen adierazpenik.

47. Ideia bera, modu gaurkotuan atzaltzen du 2009ko azaroaren 4ko AGEk: «El soporte papel ha sido superado por las nuevas tecnologías de la documentación y la información. Cualquier sistema que permita elaborar ideas, declaraciones, informes o datos susceptibles de ser reproducidos en su momento, suple con ventajas al tradicional documento escrito, siempre que existan instrumentos técnicos que permitan acreditar la fiabilidad y seguridad de los impresos en soporte magnético. Se trata de una realidad social que el derecho no puede desconocer. El documento electrónico imprime en las “neuronas tecnológicas”, de forma indeleble, aquello que se ha querido transmitir por el que maneja los hilos que transmiten las ideas, pensamientos o realidades de los que quiere que quede constancia. Su autenticidad es tan firme que supera la realidad que puede visualizarse en un documento escrito».

48. Ormazabal Sanchez, Guillermo: *La prueba documental y los medios e instrumentos idóneos para reproducir imágenes o sonidos o archivar y conocer datos*, La LEY, Madril, 2000, 206, or.

49. Zentzu horretan aritzen da Malagako EPren (6. atala) 576/2005 epaia, uztailearen 14koa: «(...)que la Ley 1/2000 de Enjuiciamiento Civil viene a dar un contenido muy amplio al término documento, yendo mucho más allá del simple soporte escrito, permitiendo aportar otros medios o instrumentos, concretando en su artículo 265.1.2 como a toda demanda o contestación habrán de acompañarse los medios o instrumentos a que se refiere el apartado 2 del artículo 299, si en ellos se fundaran las pretensiones de tutela formuladas por las partes...».

Gure iritziz, posta elektronikoz ari garenean, dokumentu pribatua delako frogabideaz mintzo gara. Azken finean, arauak eta jurisprudentziak (probintzia-entzutegiek zein auzitegi gorenak) markatutako edo xedatutako bideari begiratu behar diogu. Ez litzateke zentzuduna izango bestelako zerbait defendatzea, zeren alderdiei kaltea ekarriko bailieke.

B) Posta elektronikoa prozesuan aurkezteko forma

Arestian, *e-mailak* prozesuan jarraitzen duen *iter* normatiboa edo froga-iturri hori prozesura ekartzeko bidea zehaztu dugu. Baina, froga materialki edo fisikoki nolabait aurkeztu behar da prozesuan: auzitegira eraman eta aurkeztu behar da. Esate baterako, bideokamera batek grabatutakoak, DVD edo CD batean; eskuz idatzirik dagoen dokumentua, paperean... Gehienetan kontu honek ez du arazorik sortzen, baina gure aztergaiaren kasuan komenigarritzat jotzen dugu gaia jorratzea. Izan ere, hasiera batean ez dirudi oso argia, orri batean aurkeztu behar den, inprimaki digital moduan...

Hori azaltzeko, gogora dezagun *e-maila* dokumentu elektronikotzat jo dugula. Hortaz, zentzuzkoa litzateke haren arauak aplikatzea, betiere bateragarri direla egiaztatuz. Horren inguruan, PZLk ez du askorik esaten 268. artikuluan:

Estos documentos podrán ser también presentados mediante imágenes digitalizadas, incorporadas a anexos firmados electrónicamente. Eta:

2. Si la parte sólo posee copia simple del documento privado, podrá presentar ésta, ya sea en soporte papel o mediante imagen digitalizada en la forma descrita en el apartado anterior, que surtirá los mismos efectos que el original, siempre que la conformidad de aquélla con éste no sea cuestionada por cualquiera de las demás partes.

Bereziki interesgarriak iruditzen zaizkigu, honen harira, Nieva Fenoll-ek⁵⁰ egiten dituen adierazpenak. Haren aburuz, *e-mailaren* edukiak eskuratzea erraza da, nahikoa delarik kontuan sartzea eta *e-mailaren* kopia bat egitea. Hura, orrialdea zein dokumentu multimedia izan daiteke. Beraz, bi aukera daudela dirudi: alde batetik, modu tradizionalen, fisikoki orri batean inprimatuz; bestetik, elektronikoki dokumentu batean jasoz eta dokumentu *multimedia* hori aurkeztuz⁵¹.

Zehaztasun handiagoz aritzen da Cabezudo Rodríguez⁵², errazagoak diren euskarrien bidez aurkeztearen aldeko interpretazioa eginez. Haren aburuz, dokumentu elektronikoz (bereziki telematikoetan sortzen da arazoa) CD batean aurkezteko, erabili den *softwarea*⁵³ edo *hardwarea*⁵⁴ ipiniz eta paperean inprimatuz.

50. Nieva Fenoll: *Práctica y valoración de la prueba*, op.cit., 10. or.

51. Sinadura elektronikoaren inguruan gaineratzen du Cabezudo Rodríguez, Nicolás-ek, "Omisiones y recelos del legislador procesal ante los medios de prueba tecnológicos", *Diario La Ley*, 6158/ 2004 zk., 11. or.: «(...)deberá unirse también el certificado correspondiente de la entidad certificadora para verificar la identidad del firmante».

52. Cabezudo Rodríguez, Nicolás: "Omisiones y recelos del legislador procesal ante los medios de prueba tecnológicos", *Diario La Ley*, 6158/2004 zk.,10. or.

53. Hau da, sistema informatiko baten ekipamendu edo euskarri logikoa, jarduera zehatzak burutzea ahalbidetzen duten osagarri logikoak barneratzen dituen.

54. Sistema informatiko baten zati ukigai guztiak barneratzen ditu eta haren osagaiak elektrikoak, elektronikoz, elektromekanikoak eta mekanikoak dira.

Mezuaz edo haren edukiaz gain, oso interesgarria litzateke goiburua ere aurkeztea; izan ere, *e-mail*aren informazio garrantzitsua eskaintzen du. Horregatik, auzitegien aurrean honela egiten da. Zenbaitetan, perituaren irizpen-txosten informatikoarekin batera aurkezten da. Bestalde, sinadura elektronikoa izango balu, kodea edo atxikitako artxiboa ere aurkeztu beharko litzateke⁵⁵. Gauza bera, postari artxiboak erantsi bazaizkio; horiek aurkeztea interesgarria litzateke, auzitegiak osoko ikuspegia izan dezan.

Azken finean, jarraian aztertuko diren arazoak direla-eta, epaileek mesfidantza handiz aztertzen duten frogaren aurrean gaude, horregatik, alderdiek zenbat eta zuzentasun handiagoa izan, orduan eta froga indartsuagoa izango da; kanporatua izan dadin aukera gutxiagotuz. Horregatik, *e-maila* aurkezten denean, bestelako lagungarriren bat aurkeztea oso positiboa litzateke⁵⁶.

Gure iritziz, *e-maila* orrialde batean inprimatzea nahiko eskasa litzateke⁵⁷, beste alderdiak edo alderdiek ez aurkaratzearen mende geratuz. Izan ere, ondoren jatorrizkoa eskatzen baldin bada, agian, preklusio-unea dela-eta, aurkezteko aukera galduko bailitzateke. Gainera, inprimatu aurretik aldaketak egiteak ez du zailtasunik aurkezten eta balioa izan dezan hein handi batean beste alderdiaren mende egongo gara.

Horregatik, aurkezteko forma zentzuzkoena elektronikoa da, eta, hasiera batean, prozesu konplexua badirudi ere, ez du zailtasunik. Hots, *e-mail* kudeatzaile bat erabiltzen bada (adb. *Thunderbird*), artxibo/gorde klikatu besterik ez dago eta ondoren non eta zer izenekin eduki nahi den jaso edo adieraziz. Bestalde, haren gainean praktikarik gauzatu beharko balitz, komenigarria litzateke hura gordetzea.

4. Posta elektronikoari berezkoak zaizkion arazoak

Posta elektronikoa prozesuan onargarri den froga da eta dokumentu-frogabidearen eremuan kokatzen da. Hala ere, zenbait arazo ebaztear daude oraindik eta, jasotzen duen balorazioa aztertu aurretik, horretarako, azken txanpa dugu puntu honetan. Hau da, epaileak horien gainean egiten duen balorazioan eragina duten arazoak ditugu aztergai; izan ere, jarduera horretan ondorioak izan ditzakete. Kontuan izan behar dugu arazo hauek dokumentu «arrunt» edo

55. Jaime Bennasar, Andrés: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, *op. cit.*, 99. or.

56. Honen harira, de Urbano de Castillo, Eduardo: "La regulación legal de la prueba electrónica: una necesidad pendiente", *op.cit.*: «De ahí la importancia de que, en relación a los correos electrónicos, para la acreditación de la identidad de sus interlocutores, y de la integridad y autenticidad de su contenidos, se apure la diligencia de las partes y el debido control judicial, no contentándose con la mera aportación de los soportes en que se contenga dicha información.».

57. Esaterako, Valentziako EPK ez zuen onartu sinadura elektronikorik gabeko eta inprimagailu bidez inprimatutako *e-maila* froga osoa egitea, ez baitzuen berme nahikorik. Zehazki azaroaren 10eko 597/2009 epaiak zioen: «El documento electrónico (e-mail o correo electrónico) aportado por la recurrente, en cuanto no pose firma electrónica reconocida y ha sido obtenido a través de la impresora de un ordenador, carece de las garantías exigibles a juicio del tribunal para gozar de plena eficacia probatoria».

«tradicional»etan⁵⁸ aurkitu ahal direla, baina posta elektronikoa gure aztergaia izanik, figura horren gainean agertzen diren arazoek planteamendua egingo dugu.

A) *E-mailaren* egiazkotasuna

E-mailaren gainean arazo esanguratsuak ditugu, zeren egilearen eta mezuaren egiazkotasuna edozein dokumentutan baino nabarmentasun handiagoz agertzen baita. Oro har, postaren manipulazioak arituko gara.

Alde batetik, kontu baten titularra denaren eta mezuaren benetako igorlearen (pertsone fisikoaren) arteko batasun edo identitatea ez denean bera, hala nola beste batek pasahitza ezagutzen duenean, irekirik uzten denean eta beste batek mezua bidaltzen duenean... Azken batean, aukera handiak daude, esaterako, *andergarcia@postaelektroniko.com* kontuaren jabea izateko mezua bidali duena, baina beste edozein kasutan baino aukera gehiago daude hura ez izateko. Hau da, kontuaren titularra eta balizko jabe/igorlea ez daude zuzenean lotuta eta, horregatik, lotura hori egiaztatzeko bideak beharrezkoak izango dira. Adibideak anitz dira: kontu faltsuak erraztasun handiz egin daitezke; pasahitzaren berri izatea eta norberarena ez den kontu batetik mezua bidaltzea; zabalik uztea lantokian (edo beste toki publiko batean) eta norbaitek bildatzea,...

Bestalde, bigarren aukera sortzen da kontu horren titularrak bidaltzen duenean mezua, baina hark bidalitako edukiak eta prozesura aurkezten denaren edukiak ez dutenean bat egiten. Hori gerta daiteke dokumentu hauek erraztasun handiz eraldatuak izan daitezkeelako⁵⁹. Honako kasuetaz ari gara; *e-maila* benetan igorri ez denean eta manipulazioaren bidez subjektuak bere sarrera-ontzian onuragarria zaion mezu bat erraztasun handiz agerraraz dezakeenean, edota mezua bidali arren, jatorrian bidali zena eta prozesura eramaten dena, ez direnean berdinak.

Horrek epaileen aldetik mesfidantza handia sortzen du eta alderdiei benetako froga bat aurkaratzeko bidea ematen die. Horregatik, horien trataera funtsezkoa da, froga hori baloraziotik at uztera eraman baitezake.

B) Irtenbideak

Atal honetan, aurkeztutako arazo horiei irtenbidea ematen saiatuko gara, hots, alderdi batek errealitatean igorri/jaso den posta aurkeztean hura aurkaratu ez dadin edo aurkaratzeak froga kanporatzea lor ez dezan egin beharrekoa. Horretarako bideak honakoak dira:

58. AG (sala zibila) 752/2001 epaia, uztailaren 17koa: «(...) La autenticidad hace referencia a la concordancia del autor aparente del documento con el autor real. (...) Otra cosa es la eficacia probatoria de dichos documentos, es decir, que pruebe su contenido». Bereizketa bera dokumentu elektronikoen inguruan: Jaume Bennasar, Andrés: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, *op. cit.*, 87. or.

59. Martínez de Carvajal Hedrich, Ernesto: "Valor probatorio de un correo electrónico", *op. cit.*: «Se ha de tener en cuenta, por otro lado, que es también muy sencillo generar a posteriori un correo electrónico con un contenido, remitente, destinatario, fecha y hora que sea extrañamente favorable para quien lo aporta» edo de Urbano de Castillo, Eduardo: «La regulación legal de la prueba electrónica: una necesidad pendiente», *op. cit.* «(...) no resulta difícil manipularlo, ya que es fácilmente alterable, su manipulación es poco costosa y está al alcance de cualquiera».

1. Notarioak egindako akta: maiz notarioak egindako akta batekin aurkeztu ohi dira posta elektronikoa. Horrela, idazki horrek sarrera- edo irteera-ontzian dagoen *e-mail*aren edukia inprimatu denaren berdina delako fede ematen du. Martínez de Carvajal-en⁶⁰ iritziarekin bat eginez, elementu osagarri hori ez da nahikoa; izan ere, «ordenagailuaren pantailan eta kopian dagoena bera dela jasotzen du, baina ez du adierazten benetakoa eta egiazkoa den». Hortaz, oso oinarritzko manipulazioetatik at ez zaigu baliabide hori baliagarria izango.

2. Sinadura elektronikoa: aipatu dugunez, gaia 59/2003 Legean arautua dago eta zenbait sinadura mota aurreikusten dira. Arau horrek sinadura mota honen definizioa ematen digu: «Forma elektronikoa duten datuen multzoa, zeinak, beste batzuei gordailatuak edo elkartuak, sinatzailea identifikatzeko bide bezala erabil daitezkeen».

Hiru sinadura mota daude: a) *arrunta*, b) *aurreratua*⁶¹, eta c) *aintzatetsia*. Subjektu igorlea identifikatzeko eta mezuaren edukian gertatzen diren aldaketak argitzeko baliagarri izango zaizkigu.

Lehenengoari dagokionez, *arrunta*, bakunena da eta nahikoa litzateke posta elektronikoa pertsona baten izenarekin edota PIN kode batekin sinatzea⁶². Guztien artean babes gutxien eskaintzen duena da eta eraldaketaren aurrean ez du ondorio sortzen. Beste biek alderatuz, beste biak kualifikatuak lirateke⁶³. Zehazkiago, *aurreratua* sinatzailea identifikatzeko eta hura ezarri ondoren egiten den edozein aldaketa ezagutzeko baliagarria da, eta, *aintzatetsia*, berriz, aintzate-tsitako ziurtagirian oinarritutako sinadura aurreratua eta sinadura eratze bitarteko seguru baten bidez sortutakoa da. Azken hori, eskuz eginda dagoenari berdintzen zaio. Baina bi horien arteko ezberdintasuna sinadura aurkaratzean topatzen dugu⁶⁴, bakoitzari bide prozesal bat egokitzen baitzaio. Ondorioz, sinadura elektronikoa *aintzatetsiaren* kasuan, erantzuna lege horren 3.8k ematen du, hau da, kasu horretan ziurtagirien zerbitzua burutzen den prestatzailearenera joko da, betebeharrak eta berme guztiak bete diren konprobatzera. Aurreratuaren kasuan, berriz, atalak PZLren 326.2 artikulura igortzen gaitu eta bide horren bidez argitu beharko da⁶⁵.

60. Martínez de Carvajal Hedrich, Ernesto: "Valor probatorio de un correo electrónico", *op. cit.*

61. Gaztelaniaz «avanzada» delakoa.

62. Cabezudo Rodríguez, Nicolás: "Omisiones y recelos del legislador procesal ante los medios de prueba tecnológicos", *op. cit.*, 8.-9. or.

63. Ildo horretatik, Díaz Bermejo, Guillermo: "La firma electrónica y los servicios de certificación", *Noticias Jurídicas*, 2007ko abendua: «Igualmente distingue la "firma electrónica" de la denominada "firma electrónica avanzada", una especie de firma electrónica "cualificada"».

64. Laburki aztertuko dugu, ez baita gure aztergaia, sakonago ikertzeko: Berrocat Lanzarot, Ana Isabel: "La firma electrónica y su regulación en la Ley 59/2003, de 19, de Firma electrónica", *Foro: Revista de ciencias jurídicas y sociales*, 2006/3 zk., 397.-465. or.

65. Ideia horretaz jabetzen da Gudín Rodríguez-Macariños, Antonio Evaristo: "La diligencia de cotejos de documentos electrónicos", *Revista general de Derecho procesal*, 22/2010 zk.: «Si se impugna la autenticidad de la firma electrónica avanzada con la que se hayan firmado los datos incorporados al documento electrónico, se estará a lo establecido en el Art. 326.2 de la LEC, que prevé principalmente el cotejo de letras, difícilmente aplicable a los documentos electrónicos, pero también cualquier otro de medio de prueba que resulte útil y pertinente al efecto (prueba pericial que se valorará conforme a las reglas de la sana crítica)».

Gainera, zentzu horretan, posta elektronikoa sinadura jaso dezake bere datuak ziurtatzeko⁶⁶. Zentzu horretan *e-mailak* sinadura jasotzean, haren eraldaketa eragozten da⁶⁷ eta horrek hura aurkaratzeko aukera gutxi uzten ditu, identitatea eta edukia ziurtatuta baitaude. Figura honen inguruan jurisprudentzia maiz aritu da, bereziki, alderdiek posta elektronikoa frogatu moduan aurkeztu dutenean. Esaterako, Cadizko EPren 79/2008 epaia⁶⁸ honen inguruan ari da, bi sinadura mota horiek bereiziz. Beraz, sinadura elektronikoa mezuaren edukia eta identitatea bermatzeko tresna dugu.

Hala ere, horrek ez du esan nahi ezin huts egin dezakeenik, zailagoa dela baino. Imajina dezagun norbait pasahitzaz jabetzen dela edota indarrez sinadura hori ezartzera behartzen duela (paperean sinatzea bezala!).

3. Peritu informatikoa: posta elektronikoez ari garela (bereziki, arruntez), erabakigarria bilakatzen da peritu informatikoaren irizpen-txostena, hots, informatikan aditua den subjektuak txosten batean jasotzen du dokumentu horren egiazkotasuna. Gauza bera manipulatu dela frogatu nahi bada, guztiz egokia baita. Horregatik, posta elektronikoa erabakigarri baten aurrean gaudenean, guztiz ohikoa izango da irizpen informatikoen borroka ematea, kanporatua eta barneratua izan dadin⁶⁹. Kontuan eduki beharko dugu manipulatu izan den ala ez argituko duela, baina inolaz ere ez benetako titularrak igorri duen mezua.

Posta elektronikoa manipulatu izatea aurkaratzen denean oso ohikoak izango dira txosten hauek. Hala ere, portaera horretara aurrera gaitzke uste badugu beste alderdiak ez duela onartuko, zeren horrela dagokion idazki prozesalarekin aurkeztuz indar gehiago emango baitiogu⁷⁰.

Beraz, kasu honetan irizpen hori praktikatu da posta elektronikoen inguruan, haren egiazkotasuna eta benetakotasuna akreditatzeko⁷¹. Horrela, perituak

66. Jaime Bannasar, Andrés: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, *op.cit.*, 127. or.

67. de Urbano de Castillo, Eduardo: "La regulación legal de la prueba electrónica: una necesidad pendiente", *op.cit.*

68. Hitzez-hitzekoak honela dio: «Este nuevo precepto viene a remitirse en cuanto a la autenticación y efectos del documento electrónico, al artículo 3 de la referida Ley especial. El apartado 8 de este artículo 3 distingue entre la firma electrónica reconocida y la avanzada. La firma electrónica avanzada es la firma electrónica que permite identificar al firmante y detectar cualquier cambio ulterior de los datos firmados, que está vinculada al firmante de manera única y a los datos a que se refiere y que ha sido creada por medios que el firmante puede mantener bajo su exclusivo control. En cambio se considera firma electrónica reconocida la firma electrónica avanzada basada en un certificado reconocido y generada mediante un dispositivo seguro de creación de firma...».

69. Horren eredu dugu Zaragozako EPren 18/2005 epaia: «Las periciales han permitido constatar que, en abstracto, un correo electrónico puede haber sido objeto de manipulación, de manera que el valor probatorio de la cabecera "from" es cuestionable, nulo según el perito de la parte demandante, y sólo manipulable a través de medios sofisticados por personas con grandes conocimientos informáticos según el perito de la demandada.(...) Debe repararse en este sentido que el informe pericial del demandante es abstracto o genérico» edo Guadalajarako EPren 201/2012 epaia, irailaren 12koa: «(...) para poder determinar futuras manipulaciones, en el caso el demandado niega ser el autor, la prueba más adecuada es la pericial».

70. Valmaña, Antonio: "La validez probatoria de los correos electrónicos: lo escrito, escrito está", *Diario Jurídico*, 2013ko martxoaren 27a.

71. Garrantzi horretaz jabetuz, Jaime Bannasar, Andrés: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, *op.cit.*, 81. or.

ordenagailuak, goiburuko datuak, iturri-kodea... ikertuz aditzera emango du manipulatu izan den ala ez. Izan ere, aldatzeko burutzen diren operazio guztiek isla elektronikoa izango dute eta alderdiek aurkeztuko dituzte. Adituak egingo duen txosten horretan funtsezkoa izango da goiburua⁷², bertan mezuak jarraitu duen bidearen datuak erregistratzen baitira. Ideia hori garatzen du Martínez de Carvajal Hedrich peritu informatikoak, esanez «posta elektronikoaren ikerketa forensea nagusiki goiburua osatzen duten datuetan oinarritzen dela, zeintzuk printzipioz ezkutatuta baitaude»⁷³.

Azkenik, bestelako peritu-frogak erabiltzen dira identitate hori akreditatzeko. Adibidez, Valentziako EPren 127/2001 epaian (arlotik penala, 5. Gela), maiatzaren 24koan, telefono-linearen adituen kontrola gauzatu zen eta telefono-konpainiaren fakturazioan ikertu zen ordenagailuaren linearen eta hartzailaren linearen artean kontsumo telefonikoa zegoen ala ez. Beraz, harremanaren egiaztapena gauzatzeko aukerak anitz dira.

4. Beste froga batzuk: aipatutakoak nagusiak diren arren, zenbaitetan beste froga batzuk aurkeztu ahal izango dira, hala nola alderdien edo lekukoaren galdeketa, bideokameraz egindako grabaketak⁷⁴... Modu horretan testuingurua eta inguruabarrak argituko ditugu. Esaterako, *e-maila* igorri zen ordenagailuaren IPa identifikatuz, haren titularrari galdeketa eginez edo ordenagailuan ordu zehatz horretan pertsona bat ikusi zuen lekukoa itaunduz. Modu horretan mezua igorri zuen subjektua identifikatu ahal izango da. Ordu horretan ordenagailuan pertsona zehatz bat zegoela jaso zuen grabaketa badago, inongo arazorik gabe aurkez daiteke pertsona zehatz horrek igorri zuela frogatzeko.

5. Posta elektronikoaren balorazioa

Azalpen guztien bidez eskailera igo eta prozesuan aurrera egin dugu. Puntu honetan froga-jardueraren alderdirik funtsezkoena ematen da: frogaren balorazioa. Izan ere, epaileak frogaren gainean burutzen duen balorazio-jarduerak egitate bat frogatuztat jotzea edo ez baldintzatzen du. Horregatik, posta elektronikoak duen froga-balioa aztertuko da eta artikulu honetan zehar agertu diren egoera posibleei erantzuna emango zaie.

Horretarako, abiapuntua posta elektronikoa dokumentu-frogabidetzat jo izana da, mota horri aplikagarri zaizkion artikuluekin bat. Hala ere, kasu bakoitza aztertu aurretik, kontuan izan behar dugu zer frogatzen duen posta elektronikoak. Izan ere, *e-mailak* mezu jakin bat kontu igorle batetik kontu hartzaille batera igorria dela frogatzen du. Jakin badakigu, kontuaren titularrak eta mezua bidali duen pertsonaren identitatea bera izan daitekeela edo ez, hortaz, ez da zuzenean frogatuko subjektu zehatz batek beste bati bidali izana. Adibidez, hartzekodunak zordunari zorra eskatzean, haren preskripzioa eteten dela jakinez (KZren 1.973. artikulua), imajina dezagun elektronikoki egiten duela eskaera, nahiz eta benetan mezua

72. Haren inguruan aritu gara 2.. A) E-mail edo posta elektronikoko kontzeptuaren atalean.

73. Gaia sakonki aztertzen du Martínez de Carvajal Hedrich, Ernesto-k: "Valor probatorio de un correo electrónico", *op. cit.*

74. Honen harira, Jaime Bennisar, Andrés: *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, *op. cit.*, 88. or.

bidali, zorduna kontu horren titularra zela eta hark jaso zuela frogatu beharko da⁷⁵. Batzuetan zaila, beste batzuetan errazagoa izango da.

A) Sinadura elektronikodun *e-maila*

Dakigun moduan, elementu hau duten dokumentu informatikoak dokumentu-froga izango dira, beraz, hura duen posta elektronikoa dokumentu-arauekin bat baloratuko da⁷⁶. Horren inguruan, erantzuna PZLren 326. artikulua ematen digu: «PZLren 326.1 artikulua dioenez, dokumentu pribatuek froga osoa eratuko dute prozesuan, PZLren 319. artikuluan dioten moduan, baldin eta egiazkotasuna kaltetzen zaion alderdiak aurkaratzen ez badu».

Hortaz, sinadura elektronikoa edozein delarik, postak jasotzen dituen gertakari, egintza edo gauzen egoera, data eta pertsonetikiko froga osoa egingo du. Betiere, manuak dioten bezala, egiazkotasuna aurkaratzen ez bada (eta hori guztiz posible litzateke). Kontua da puntu honetan PZLren 326.2 artikulua 59/2003 Legea, sinadura elektronikoa ingurukora, igortzen gaituela. Puntu honetan erantzunak ezberdinak izango dira sinadura motaren arabera.

Alde batetik, *aintzatetsitako* sinadura elektronikoa dugu, zeinaren aurkaratze-erantzua 3.8 artikuluan jasotzen den. Bertan jasotako eta jada azaldutako egiaztapenak egin ostean, emaitza positiboa bada, sinadura elektronikoa benetakotzat joko da. Holako sinadura duten dokumentu pribatuak aurkaratzeko aukerak oso eskasak dira, oso zaila baita haien erabilera ez-zilegia frogatzea⁷⁷. Hala ere, Nieva Fenollek dioten moduan⁷⁸, erabilera desegokia izateko aukera handirik ez egon arren, posible litzateke gertatzea, eta hori frogatuko balitz, epaileak onartu beharko luke, balorazio askea erabiliz edo baloraziotik at utziz. Hots, sinaduraren egiaztapena balorazio askearen bidez egin beharko da.

Bestalde, sinadura *aurreratua* eta *arrunta* ditugu, zeintzuen froga-balioa dokumentu pribatuaren berdina da. Lehenengoari dagokionez, 59/2003 Legearen 3.8 artikulua erreferentzia, PZLren 326. artikulua xedatutakoari so egin behar diogu: «Dokumentu pribatuaren benetakotasuna aurkaratzen denean, hura aurkeztu zuenak idazkera-alderaketa edo helburu horretarako egoki eta baliagarri den

75. Zenbait adibide jasotzen ditu AIGE MUT, M^a Belen-ek: "Apunte sobre la valoración del documento electrónico ¿Prueba libre o tasada?", *Revista General de Derecho Procesal*, 24/2011 zk.: «Pero puede bastar con un simple e-mail impreso o un documento electrónico para probar una transacción simple o un registro de datos (al igual que un justificante del envío de un fax puede servirnos como prueba de su envío, una impresión con justificante de fecha y hora de un e-mail debería servirnos como prueba también de que el mismo se ha enviado o recibido)».

76. Berrocat Lanzarot, Ana Isabel: "La firma electrónica y su regulación en la Ley 59/2003, de 19, de Firma electrónica", *op.cit.*, 397.-465. or.: «Que la ley se refiere a los documentos firmados electrónicamente como verdaderos documentos, sin marcar diferencias en atención a la clase de firma, sino a la naturaleza del documento (público o privado), a los efectos de su aportación como prueba documental en juicio».

77. Gurekin, bat, Nieva Fenoll, Jordi: *La valoración de la prueba*, *op.cit.*, 318. or.

78. Nieva Fenoll, Jordi, *Práctica y valoración de la prueba*, *op.cit.*: «(...) desde luego, si alguno de esos documentos aparece con firma electrónica reconocida, la impugnación de la autenticidad de la identidad del otorgante será muy difícil, porque la certificación es un indicio muy fuerte. Pero la prueba en contrario no es imposible. Por consiguiente, la prueba es libre. Y este aspecto de la certificación no es más que un avatar —aunque relevante— en la práctica de dicha libre valoración».

bestelako frogabidea eskatu ahal izango du». Beraz, kasu honetan aurkaratutako dokumentu pribatu moduan baloratuko litzateke, hots, balorazio askeaz. Hala ere, haren egiazkotasuna frogatzekotan, balorazio legala aplikatuko da.

Azkenik, sinadura *arrunta* dugu, hiruren artean babes gutxiena du, soilik parte-hartzaileak eta data egiaztatzen baititu. Hala ere, horrek ez dakar dokumentu pribatua ez denik eta, horregatik, haren balorazio-arauekin bat baloratuko da⁷⁹. Beste kontu bat da, aurkaratzen baldin bada, babes gutxiago izatea, balorazio askearen eremuan kokatzeko aukerak handituz.

Laburbilduz, posta elektronikoak edozein sinadura elektroniko badu, dokumentu-frogatzat joko da eta haren arauekin bat baloratuko da. Esan dugun moduan, sinadura arteko ezberdintasuna aurkaratzeko aukeran dago, beraz, sinadura bakoitzaren arabera babes bat edukiko du *e-mailak*, hortaz, balorazio legaletik askera igarotzeko aukera gehiago. Bi hitzetan, aurkaratzen aurrean «blindaje» moduko bat ematen dio eta benetako igorlearekin identifikatzeko aukerak areagotzen ditu, sinadura hori pertsonala baita.

B) Alderdiek onartutako edo ez aurkaratutako posta elektronikoa

Kasu hau ez da batere konplexua: posta elektronikoa alderdietako batek aurkezten badu eta hark kaltetzen duen alderdiak onartzen badu, froga osoa egingo du prozesuan (PZLren 326.1 art.). Hots, guztiz logikoki, balorazio legala aplikatuko da. Hala izango da dokumentuak sinadura elektronikoa (edozein mota) eduki zein eduki ez. Beraz, *e-mail* arruntek ere balorazio hori izango dute.

Zentzu berean, froga aurkaratuko ez balitz, ondorio berdinerira iritsiko ginateke, aipatutako manu horrek dioenari jarraiki. Hau da, *e-mail* horrek balorazio tasatua izango luke, bi kasuetan egiazkotzat jotzen baita eta ezinbestez loturik geldituko da epailea horren bidez esaten denari⁸⁰.

C) Aurkaratutako e-mailaren balorazioa

Dakigunez, posta elektronikoak aurkaratzeko aukerak zabalak dira; izan ere, orain arte, horren eredu diren adibide anitz aipatu ditugu (esaterako 3. puntuan). Azken finean, manipulatzeko oso errazak dira. Horregatik, aipatu bezalaxe, epaileek mesfidantza handiz baloratzen dituzte dokumentu hauek, «manipulatuak izan diren beldur baitira»⁸¹.

Hori dela-eta, zenbaitetan aurki daitezke «*e-mailaren* froga-balioa ia-ia deuseza da eta beste alderdiak ez aurkaratzearen menpe dago; izan ere, hala jardunez gero, zaila da beraien legitimazioa defendatzea euskarri tekniko egokirik gabe» moduko adierazpenak⁸².

79. Gainera, 59/2003 Legearen, 9. artikuluaekin bat: «No se negarán efectos jurídicos a una firma electrónica que no reúna los requisitos de firma electrónica reconocida en relación a los datos a los que esté asociada por el mero hecho de presentarse en forma electrónica».

80. Kasu horretan, dokumentu pribatuen balorazio legalaren aldeko, Aragoneses Martínez, Sara; Cubillo López, Ignacio; Hinojosa Segovia, Rafael; Peiteado Mariscal, Pilar eta Tomé García, José: *Cien cuestiones controvertidas sobre la prueba en el proceso civil*, Colex, Madril, 2004, 165. or.

81. Nieva Fenoll, Jordi: *Práctica y valoración de la prueba*, op. cit, 16. or.

82. Martínez de Carvajal Hedrich, Ernesto: «Valor probatorio de un correo electrónico», op. cit.

Hala ere, aurkaratzeak edota sinadura elektronikorik ez edukitzeak ez dakar baloraziorik ez izatea⁸³, eta horren eredu dira jurisprudentzian aurkitzen diren aipamen ugari, esaterako, posta elektronikoa auzigai delarik:

Madrilgo EPren 336/2012 epaia: «En relación concreta con la valoración de los correos electrónicos, (...) a su apreciación no puede obstar que se hayan impugnado puesto que (...) la validez de tales correos, como documentos privados, puede ser considerada en relación con el resto de las pruebas, y de ellas se despende que los correos fueron enviados y recibidos, sin que conste en absoluto la pretendida manipulación».

Guadalajarako EPren 201/2012 epaia: «(...) sobre impugnación de documentos electrónicos, que en todo caso han de ser valorados conforme a las reglas de la sana crítica, y para poder determinar posibles manipulaciones, la prueba más adecuada es la pericial».

Ondorioz, aurkaratzeak, dokumentu pribatu ororen kasuan, balorazio askearen eremura eramango du *e-maila*. Betiere, PZLren 326. artikularekin bat frogabideen bidez haren egiazkotasuna frogatzen ez bada, bestela legezko balorazioaren eremuan kokatuko baita⁸⁴. Beste modu batean, aurkaratzen baldin bada eta haren egiazkotasuna frogatzen ez bada, edo frogarik ez praktikatzen ez bada, balorazio askekoa izango da.

Horregatik, haren egiazkotasuna demostratzeko funtsezkoak izango dira aipatutako froga osagarri guztiak eta alderdiek aurretik hartutako kautelak (aurkezterakoan egindako forma eta osagarriak). Froga ezberdinak erabili beharko dira alderdiek aurkaratzeko erabilitako argudioaren arabera. Adibidez, alderdiak posta elektronikoa bidali ez zuela argudiatzen badu, norbait bere kontuan sartu zelako, peritu-irizpena ez zaigu baliagarri izango, eta lekukoaren galdeketa edo bideo-kamera baten bidez jasotako grabazioak erreproduzitzea egokiagoak lirateke.

Adibidez, arlo penalean Asturiasko EPren (2. Sekzioa) 121/2013 epaiak, martxoaren 18koak, akusatua posta elektronikoz bidalitako mezu iraingarrien egiletzat jotzen du, horiek jatorri zuten kontua haren lantokiko ordenagailuaren IPan sortu zirelako eta mezuak bertatik eta haren etxetik bidali zirelako⁸⁵.

83. Granadako EPren 5/2012 epaia (3. Gela), urtarrilaren 13koa: «La documentación telemática (...) mediante correo electrónico constituye, para este tribunal documentación suficiente a expensas de eventuales impugnaciones que aquí no sean realizadas».

84. Aurkaratutako eta benetakoa edo faltsua dela egiaztatu ez den dokumentu pribatuaren inguruan, Aragonesez Martínez, Sara; Cubillo López, Ignacio; Hinojosa Segovia, Rafael; Peiteado Mariscal, Pilar eta Tomé García, José: *Cien cuestiones controvertidas sobre la prueba en el proceso civil, op.cit.*, 166. or.

85. Asturiaseko EPE 121/2013-ak jaso zuen: «Que tras las oportunas investigaciones pudo comprobar cómo la cuenta de correo electrónico "garciajssh@hotmail.com" fue creada a las 16,30 horas del 23 de noviembre de 2009, desde donde esa misma tarde y con cargo a la referida cuenta electrónica se envió el primerio de los mensajes (...), dándose la circunstancia de que la IP perteneciente a telefónica está asignada al arzobispado de Oviedo, precisamente donde trabajaba la denunciada (...) debemos de tener en cuenta, la pluralidad de indicios (...) que vienen a acreditar aún más estos últimos (...) enviados por personas del entorno de su destinataria, al conocer una serie de circunstancias de la misma, como el lugar de trabajo y el tiempo que estuvo de baja, y que no era la primera vez que la recurrente enviaba a su cuñada, con la que no mantenía relaciones un mensaje de parecido contenido (...)».

Hala eta guztiz ere, benetakoak direla egiaztatzen ez bada, ez dira kanporatuak izango baloraziotik. Faltsuak direla frogatuz gero, berriz, bai. Epaileak gainerako froga eta auziaren elementuekin bat baloratu ahalko ditu, balorazio askea dela-eta. Hala adierazi da maiz jurisprudentzia, atal honetan jada aipatu ditugun bi epaietan edo Zaragozako EPren 18/2005 epaian, urtarrilaren 14koan⁸⁶ edo Valentziako EPren 597/2009 epaian, azaroaren 10ekoan⁸⁷, esaterako.

Azken finean, horiek aurkaratzeko aukerak hain zabalak direnez, ez baldin badago beste froga osagarririk, balio eskasekoak izango dira. Hots, balorazio aske horretan epaileak mesfidantza handiz begiratuko die. Ondorioz, beste froga gehigarririk egonez gero, horiekin batera baloratuko ditu, eta norabide zehatzeko balorazioa ondorioztatu ahal izango du. Beraz, horiek aurkeztu nahi dituen alderdiak ahalik eta kontu handiena izaten saiatu beharko du, haien indarra bermatzeko.

Baliorik ez edukitzearen interpretazio horren aurka, Nieva Fenoll⁸⁸ agertzen da. Dokumentu elektronikoen inguruan, ez dela susmo arrazoigabea eduki behar baieztatu ondoren, horiek aldatzen direnean aztarna uzten dela defendatzen du. Aztarna horiek detaile txikiak dira (data, egilearen izena..), dokumentuaren hitz, letra edo artxiboaren tamaina (MB eta byteak). Gainera, informazio hori eskuratzeara erraza da (epaileak arazorik gabe eskura dezake) eta aldaketarik txikiak ondorioak ditu (esaterako, goiburuan). Horregatik, esaten digu «datu hauei guztiei erreferentzia egiten dien dokumentu multimedia, beste edozein idatzizko dokumentu tradizional aldatzeko baino askoz ere zailagoa da».

6. Ondorioak

Azalpen guztiak egin ondoren, argi eta garbi dago posta elektronikoak froga moduan ugariak direla eta prozesuan baliozko froga direla. Azken finean, froga oro da baliozkoa eta onargarria, betiere dagokion frogabidetik sartzen bada. Izan ere, kontrakoa pentsatzea Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan aurreikusitako defentsa-eskubidearen aurkakoa litzateke. Bestalde, guztiz ezberdina da hari ematen zaion balioa, bereziki balorazio askearen eremuan (aurkaratua izateagatik edo legez egokitzen zaielako); izan ere, inguruabarrak aintzat hartu beharko dira eta beste frogekin batera ponderatu, ondorioz, posta elektronikoak beste frogek baino eragin gutxiago izatea egitate bat egiaztatzerakoan. Horregatik, beti baliozkoa izango da posta elektronikoa prozesuan aurkeztea.

Gainera, egungo legediak bide egokiagorik aurreikusten ez duen bitartean, dokumentu pribatuaren frogabidetik sartu behar da prozesuan, hots, gure ustez ondore prozesuarekiko dokumentu pribatutzat jo behar da.

86. Zaragozako EPE 18/2005-ek, zioen: «El mismo no viene avalado por firma electrónica, ello no impide que pueda ser valorado como prueba (...) pero es que además hay que acudir al comportamiento de las partes como elemento accesorio que sirva para sacar una conclusión sobre la realidad o autenticidad de aquel correo, la misma habrá de ser favorable».

87. Valentziako EPE 597/2009-k, hitzez hitz: «En esta tesitura resulta de aplicación artículo 326.1 de la LEC (...)no ha propuesto la parte demanda apelante prueba alguna (...) habrá que aplicar para la valoración de su eficacia las reglas de la sana crítica(..)».

88. Nieva Fenoll, Jordi; *La valoración de la prueba, op.cit.*, 320- or.

Hala ere, horrek ez du esan nahi kontu guztiak baketsuak direnik, eta oraindik arau-behar handiak daude. Lehenik eta behin, aipatu bezala, epaileek mesfidantzaz eta beldurrez ikusten dituzte medio elektronikoak eta, bereziki, posta elektronikoa. Manipulazioan oinarritzen den sentimendua gainditu beharra dago; izan ere, frogatu dugun moduan, balizko eraldaketa horiek detektatzeko bitartekoak daude eta aztarna utzi ohi dute. Azken finean, oinarritua ez den zio baten poderioz, frogaiturri etengabea den baliabide hau suertatzen da kaltetua.

Bestalde, komenigarria litzateke neurri elektroniko hauei egokitzen zaien frogabide bat egituratzea PZLn, beldur hori gainditzeko bitarteko moduan. Egun oso modernoak diren baliabideak ugariak dira, posta elektronikoa, web orrialdeak, bilketa-lainoak (esaterako, *icloud* edo *dropbox*), *SMSak*⁸⁹, telefono mugikorren bidez egiten diren *chatak*... . Horietan dokumentu elektronikoen oso antzekoak edo azpikategoriak diren figurak aurkitzen dira, baina haien euskarria dela-eta (gehienetan berme handiagoarekin), balorazioan kalteak jasan ohi dituzte. Horregatik, oso ona litzateke gure legegileak dokumentuen balio-indarretik gertu dagoen bidea eraikiko balu, baina haien gaineko mesfidantza gainditzeko tresnak aurreikusiz neurri berean. Zenbaitek esango dute egun badagoela bide hori PZL-ren 299.2 artikuluan aurreikusia. Hala ere, araudi hori eskasa da (artikulu gutxi baino ez ditu), ez ditu aukera guztiak jasotzen eta bide horretatik sartzen diren frogak balorazioan kaltea jasango dute, beti balorazio askea izango baitute (dokumentuen bidetik sartu izan balira, berriz, ez). Beraz, froga elektroniko egokia arautzea behar nabarmena da zuzenbide prozesalean.

Horrez gain, posta elektronikoa hartzailearen zerbitzarian egoteaz gain, zerbitzu-prestatzaileak ere badu. Horregatik, epaileek figura honekiko duten mesfidantza gainditzeko oso baliagarria litzateke posta elektronikoaren zerbitzuaren prestatzaileak horiek ziurtatuko balitu alderdiaren eskariz. Hau da, mezuaren igorle, hartzaile eta orduaz gain, edukia ere ziurtatuko balu. Ziurtagiri horrekin ondorengo manipulazio edo aldaketarik egotea eragotziko litzateke. Segurtasun horrek asko areagotuko luke haren erabilera jarduera ekonomikoetan eta trafikiko juridikoan. Azken legegintza zentzu horretan ari dela dirudi, nahiz eta oraindik erabateko arrakasta ez duen lortu.

Zenbait herrialdetan ziurtatutako *e-maila* legez arautua dago⁹⁰ eta hori ez da Espainiaren kasua, non baden garaia horren inguruko araudia izateko. Beste herrialdeen ekimenari jarraituz, legegileak behar horri erantzun beharko lioke eta, horrela, bide elektronikoak sustatuko lituzke, konfiantza areagotuz. Bien bitartean, jarduera pribatuak baino ez ditugu, non konfiantzazko hirugarren batek eta notarioak parte hartzen duten.

Azken finean, konfiantza sustatzeko aldaketa hauek guztiak gauzatzen diren bitartean, alderdien diligenzia edo arretari egin behar diogu so. Izan ere, posta elektroniko bat aurkeztu behar badute, ahalik eta kautela edo kontu gehien hartzea gomendatzen zaie, balizko aurkaratzearen aurrean defentsa eduki dezaten.

89. Ingelesezko «Short Message Service» esapidea laburtzen duten siglek.

90. Gainera, Europar Batasuna gai honen inguruan ari da, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren Erregelamendu proposamena, *identifikazio elektronikoa eta barne-merkatuan burututako transakzioen konfiantza-zerbitzuen ingurukoa* (2012/0146 (COD)).

Erabilitako bibliografia

- AAAA (Zuz. Abel Luch, X. eta Picó Junoy, J.) (2005): *Problemas Actuales de la prueba civil*, Bosch Procesal, Bartzelona.
- , (Zuz. Abel Luch, X. eta Picó Junoy, J.) (2007): *Objeto y carga de la Prueba Civil*, Bosch Procesal, Bartzelona.
- Abel Lluch, X. (2011): “Repensando el concepto de documento”, *Diario la Ley*, 7667/2011 zk.
- Aige Mut , M^ª B. (2011): “Apunte sobre la valoración del documento electrónico ¿Prueba libre o tasada?”, *Revista General de Derecho Procesal*, 24/2011 zk.
- Alemaný Eguidazu, J. (2001): “La prueba de Autenticidad Electrónica con la lec 2000”, *Diario La Ley*, 3. tomoa/ 2001.
- Aragoneses Martínez, S.; Cubillo López, I.; Hinojosa Segovia, R.; Peiteado Mariscal, P. eta Tomé García, J. (2004): *Cien cuestiones controvertidas sobre la prueba en el proceso civil*, Colex, Madril.
- Armentia Dau, T.; Córdón Moreno, F.; Muerza Esparza, J. eta Tapia Fernandez, I. (2011): *Comentarios a la Ley de Enjuiciamiento Civil*, Aranzadi, Iruñea.
- Belda Pérez-Pedrero, E. (2001): “El derecho al secreto de las comunicaciones: algunos apuntes sobre su protección en las relaciones por correo electrónico”, *JIS'2000: III Jornadas sobre informática y sociedad*, Comillaseko Unibertsitate Pontifikala, Madril.
- Berrocac Lazaro, A. I. (2006): “La firma electrónica y su regulación en la Ley 59/2003, de 19, de Firma electrónica”, *Foro: Revista de ciencias jurídicas y sociales*, 3/2006.
- Bonet Navarro, J. (2009): *La prueba en el proceso civil: cuestiones fundamentales*, Difusión Jurídica, Madril.
- Cabezudo Rodríguez, N. (2004): “Omisiones y recelos del legislador procesal ante los medios de prueba tecnológicos”, *Diario La Ley*, 6158/2004 zk.
- De Urbano De Castillo, D. (2011): “La regulación legal de la prueba electrónica: una necesidad pendiente”, *Diario La Ley Penal*, 82/2011 zk.
- Díaz Bermejo, G. (2007): “La firma electrónica y los servicios de certificación”, *Noticias Jurídicas*, 2007ko abendua.
- Gudín Rodríguez-Macariños, A. E. (2010): “La diligencia de cotejos de documentos electrónicos”, *Revista general de Derecho procesal*, 22/2010 zk.
- Jaume Bennasar, A. (2010): *La validez del documento electrónico y su eficacia en sede procesal*, Lex Nova, Valladolid.
- Martínez de Carvajal Hedrich, E. (2013): “Valor probatorio de un correo electrónico”, *Diario la Ley*, 814/2013 zk.
- Mir Puig, S. eta Corcoy Bidasolo, M. (2011): *Comentarios al código penal: reforma LO 5/2010*, Tirant lo Blanch, Valentzia.
- Montero Aroca, J.; Gomez Colomer, J. L.; Barona Vilar, S. eta Calderón Cuadrado, M. P. (2012): *Derecho Jurisdiccional II: Proceso civil*, Tirant lo Blanch, 20. argitalpena, Valentzia.
- Montero Aroca, J. (2002): *La Prueba en el Proceso civil*, Civitas, 3. argitalpena, Madril.
- Nieva Fenoll, J. (2010): *La valoración de la prueba*, Marciall Pons, Madril.
- , “Práctica y valoración de la prueba documental multimedia”, *Actualidad civil*, 17/2009 zk.
- Ormazabal Sanchez, G. (2000): *La prueba documental y los medios e instrumentos idóneos para reproducir imágenes o sonidos o archivar y conocer datos*, La LEY, Madril.
- Valmaña, A. (2013): “La validez probatoria de los correos electrónicos: lo escrito, escrito está”, *Diario Jurídico*, 2013ko martxoaren 27a.

